



Urretxuko musikariak aurrera



- **2_ Udal-gai nagusia**
_Obrak udalerrian
- **12_ Herriko gai nagusia**
_Diru-laguntzak krisi garaian
- **18_ Erreportaia**
_Irimo Azpi taldeak 25 urte
- **20_ Elkarrizketa**
_Joxe Manuel Bereziartua "Bere"



Udal-gaiak / Temas municipales

Espazioen antolaketa aldatuz zerbitzua hobetu

Urretxuri zerbitzu hobea eta erosoagoa emateko, Udalak lan antolaketa berria du abian eta horretara egokituz hainbat obrari ekin dio. Udaletxearen egoitza, liburutegia eta gazteentzako instalakuntzak dira, besteak beste, egun Urretxun obrak dituzten eremuak.



▲ Gazte Txokoa



▲ Bake Epaitegia



▲ Pagoeta



▲ Udaketxea barrutik



▲ Udaletxe sarrera

Kaixo 102. alea
2010eko ekainia
Urretxuko Udal Aldizkaria

Ale honetako laguntzaileak:

Aztiker, Jesus Mari Alberdi, Iñaki Arriaran, Sara Arrizabalaga, Gorka Azkarate, Irene Calvillo, Miren Castillo, Jon Castrillo, Miguel Cristobal, Begoña Etxaniz, Rosa Etxaniz, Ana Isabel Iturbe, Unai Lazkano, Ana Ovejas, Maite Quevedo, Kizkitza Ugarteburu, Mari Carmen Viedma

Argazkiak:

LUIS ANGEL TELLEZ, KAIXOko LAGUNTZAILEAK eta VERBAX

Lege Gordailua: 55/678/93

Konposaketa: ERROTAPRINT Inprimaketa: IPARRAGIRRE, S.A.

Tirada: 3.400 Ale

KAIXOK ez du derrigorrez bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.
KAIXO no se identifica necesariamente con las opiniones de sus colaboradores, ni se hace responsable de las mismas.

Ez bazara Urretxun bizi eta KAIXO aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, eman zure helbidea 943 03 80 88 telefonoan edota kultura.ur@urretxu.net helbide elektronikoan.

Si no vives en Urretxu y quieres recibir la revista KAIXO en tu buzón, déjanos tu dirección en el teléfono 943 03 80 88 o bien en kultura.ur@urretxu.net.



▲ Kulturako bulego berria

“Udalaren birgaitzea” proiektuaren barruan, lanik handiena udaletxearen egoitza nagusian dago, dituen espazioak optimizatzeko, segurtasuna handitzeko, zerbitzua erosoagoa izateko eta barruko lan antolamendurako erraztasunak bideratzeko. Orain arteko sarrera nagusia itxita dago, sarrera horren azpian soto berri bat egiten ari direlako. Hor irabaziko den espazioan herriko artxibo historikoa kokatuko dute, agiri-erantzako segurtasuna eta kontserbazio baldintzak hobetuz.

Aurrerantzean udaletxeak sarrera Avenida kalean izango du. Beheko solairuan, artxiboaz gainera, Udaltzaingoa eta makinaren gela kokatuko dituzte eta herritarrentzako harrera ere sarreran bertan egotea aztertzen ari dira. Orain arte Udaletxeko “hall”-a izan dena erakusketa areto bihurtuko da eta Iparragirre plazara ematen duen ate nagusia itxita egongo da, ekitaldi bereziak daudenean ezik. Solairu horretan irisgarritasunerako ranpak egingo dituzte, kaleko eta barruko mailen arteko aldea gainditzeko.

Obretan indusketa arkeologikoak egin dira eta, garrantzi arkeologikorik ez duen arren, jakin dugu udaletxearen orain arteko sarreraren azpitik kale bat igaro zela. Atzekaldean, berriz, agerian gelditu dira hasierako eraikinaren kaleko hormaren arku bat eta lehoi zahar bat.

Argi gehiago

Argi naturala irabazteko, teilatura ematen duen patioaren sabaia zabaldu dute eta, bestalde, eskailera nagusien ostean dagoen hutsunea ere zabaldu eta kristalera bat jarriko diote.

Hurrengo fase batzuetan argi gehiago eta lan egiteko leku gehiago eta erosoagoa irabaziko ditu udaletxeak. Barruko tabikeak desagertaraziko dituzte eta kristalaren eta moduloen bitartez antolatuko dituzte lan sailak.

Urretxuko Udalak enplegu eta ekonomia jasangarria bultzatzeko Estatuko Fondoa baliatu du hainbat obra egiteko. 2010ean bukatuko dira lan horiek.

| Egoitza nagusitik at | |
|----------------------|---|
| Liburutegian | Umeen eta ikus-entzunezkoen guneak garatu. Espositore bikoitzak ezarri. Taldekako lanak egiteko gela egokitu. KZgunea integratu. |
| Gaztetxokoa | 12-17 urteetako gazteentzat. Jauregi kalean. |
| Musika taldeak | Sarralden behin behineko egoitza. |
| Kiroldegian | Tabernaren espazioa egokitu spinninga egiteko. Gimnasioa goiko gela handiagora igo. |
| Urrelur | Osagaien antolaketa hobetu. Informazio muralak berriztu. |
| Bake epaitegia | Iparragirre kaleko 34. atarian kokatu. |
| Pagoeta eremua | Hiru erraileko errepidea. Behin behinean, bigarren fasera arte, errail bat aparkalekuetarako egokituko da: 48 aparkaleku (3 minusbaliatuentzako). 4 aparkaleku autobusentzat. 3 m. zabalerako espaloia. Beheko plazan aparkalekuak kendu eta oinezkoentzako eremu zabalagoa egokitu, errepidearen maila berean. Goiko aldean, etorkizunerako biribilgunea planifikatuta. |
| Santa Barbara eremua | Ur biltegia. |

Udal-gaiak / Temas municipales

Udaltzaingoa

Autobus geltokiak Urretxun

Autobus geltokietan arazoak izaten dituzte normalean autobusek euren geldialdiak egiteko bertan aparkaturik egoten diren kotxeak direla eta. Horrenbestez, autobusek errepidean bertan egin behar izaten dute geldialdia, kotxe ilara handiak sortuz, eta arriskuan jarriz igo eta jaisten ari den jendea, eta horren guztiaren ondorioz, zerbitzu publiko hori erabiltzen dutenen artean ezinegona



sortuz.

Urretxuko Udaltzaingotik gogorarazi nahi da goizeko 06:00etatik gaueko 22:00etara autobusak ibiltzen direla, eta hortaz, ordutegi horretan ezin dela aparkatu geltokietan. Dagoeneko Udaltzaingoa isunak jartzen ari zaizkie han aparkatzen duten kotxeei.

Urretxun bi autobus geltoki daude, bata Labeaga 14an eta bestea Labeaga 72an. Bertatik bai PESAko Legazpirako autobusa, bai Zumaiatik datorren EUSKOTREnekoa eta baita ere ikastetxeetarako hainbat autobus igarotzen dira. Ikus daitekeenez, egun guztian zehar autobus desberdinak ibiltzen dira.

Urretxuko Udaltzaingoa garraio publiko zerbitzu honen funtzionamendu ona bermatu nahian, goian egindako gomendioak errespetatzea eskatzen du, guztion onerako.

Hirigintza

Actuaciones en materia de eficiencia energética

Hace ya más de una década que este Ayuntamiento viene realizando actuaciones para lograr un uso más racional de la energía, persiguiendo un ahorro económico y, al mismo tiempo, un beneficio medioambiental.

En una primera fase, este objetivo se materializó en la instalación de reguladores de flujo en distintos cuadros del alumbrado público municipal.

Una vez concluida esta fase, se inició la sustitución de las luminarias no eficientes por otras con reflector de aluminio en el hemisferio superior, que reducen considerablemente la contaminación lumínica y el consumo de energía, permitiendo una luminosidad similar con menor potencia.

Progresivamente, se han ejecutado diversas zonas: Basagasti, Gainzuri, Aparicio, Matxinporta, Liceo, grupo Santa Bárbara, plaza Goierri, Madaya, Mendaratz plaza y Kalerrota, quedando pendiente para 2011 el Bidegorri.

El objetivo es lograr un sistema de alumbrado más eficiente, sustituyendo aquellas luminarias que dis-



persan la luz en todas las direcciones por otras que dirigen la luz directamente al suelo, con lo que se evita el impacto ambiental que genera la luz artificial proyectada innecesariamente al cielo, y además, se obtiene un ahorro importante en el consumo de energía, ya que su rendimiento es mayor.

Ogasuna

Medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales

Modificación de la Ley 30/2007 de Contratos del Sector Público relativo al pago del precio.

La Ley 15/2010, de 5 de julio, modifica el apartado 4 del artículo 200 de la Ley 30/2007 de Contratos del Sector Público relativo al pago del precio. La nueva redacción establece la obligación de la Administración de abonar el precio dentro de los 30 días siguientes a la expedición de las certificaciones de obras o de los correspondientes documentos que acrediten la realización total o parcial del contrato. Posteriormente, en el apartado tres, se añade una nueva disposición transitoria octava relativa a los plazos de pago, que variarán en función del año:

- Desde la entrada en vigor de esta ley, 7 de julio hasta el 31 de diciembre 2010 el plazo será de 55 días.
- Durante el 2011 será de 50 días.
- Durante el 2012 de 40 días.
- Y finalmente a partir del 1 de enero de 2013 de 30 días.

Resulta destacable la regulación del procedimien-

to de reclamación por los interesados una vez transcurrido el plazo de pago.

Por otra parte, el artículo cuarto establece que "los Tesoreros o, en su defecto, Interventores de las Corporaciones locales elaborarán trimestralmente un informe sobre el cumplimiento de los plazos previstos en esta Ley para el pago de las obligaciones de cada entidad local, que incluirá necesariamente el número y cuantía global de las obligaciones pendientes en las que se esté incumpliendo el plazo".

**Enplegu**

Eskaintza berria Urretxuko Kzgunean



Azaroan Urretxuko Kzgunek egoitza aldatu du. Orain Jauregi kalean, 21. zkian aurkitu dezakegu, liburutegi ondoan. Aldaketa honekin kultur arloko zerbitzuak bateratuta gelditzen dira, kultur etxea, liburutegia eta kzgunea.

Ordutegiari dagokionez ere berrikuntzak daude, goiz

eta arratsaldean eskaintzen baitu zerbitzua, goizeko 09:00etatik 13:00etara eta arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara. Astelehenetik ostiralera bitartean aukera dago bai nabigazio gelan aritzeko edota formakuntza saioetara hurbiltzeko.

Azarotik aurrera ere hemeroteka zerbitzua erabil daiteke goizez, hau da, 09:00etatik 13:00etara; orduetegi honetan eta baita ere arratsaldean, beti bezala, eguneroko prentsa eskuragarri jartzen da edozeinek irakurri ahal izateko.

Eskaintza berri bat ere martxan jarri da, liburuen trukaketa. Gune bat jarri da bizilagunek erabiltzen ez dituzten aleak hona ekartzeko eta "partikularren artean" trukaketak egin ahal izateko. Esperientzia berria da hau eta Kzgunearekin batera martxan jartzen da. Kzgunearen eta Urretxuko Udalaren arteko proiektua da eta emaitzen arabera beste herrietara zabaltzeko prest daude Kzgunekoak.

Centro de Día a la carta: los ciudadanos preguntan

Hace unos meses, se puso en marcha en el Centro de Día Santa Barbara de Urretxu un nuevo servicio pionero en Gipuzkoa denominado "Centro de Día a la Carta".

Estas son algunas de las preguntas más frecuentes realizadas por los ciudadanos en torno a este nuevo servicio:

¿A qué personas está dirigido el servicio?

El servicio pretende dar respuesta por un lado a las necesidades de las personas mayores de 65 años valoradas como dependientes por la Diputación, y por otro lado a los familiares y personas cuidadoras de éstas, para que puedan disponer de un tiempo para ellos mismos.

¿Pueden hacer uso de este servicio las personas de otros municipios?

Sí. El servicio está disponible a todas las personas de Gipuzkoa siempre que cumplan los requisitos anteriormente mencionados.

¿Cuál es el objetivo de este servicio?

El objetivo principal de este servicio es dar cobertura a las necesidades de las personas dependientes en situaciones puntuales.

Por ejemplo: muchas veces las/los cuidadora/es de las personas dependientes necesitan ausentarse de sus domicilios por diversos motivos y no tienen con quien dejar a estas personas; es en estos casos cuando pueden hacer uso de este servicio.

Es una especie de guardería para personas dependientes.

Eguneko Zentroa neurrira zerbitzuaren helburua, menpekotasuna duten pertsonen une jakin bateko beharrei erantzutea da.

¿Cuáles son los servicios que se ofrecen?

Existe una carta de servicios que permite elegir dependiendo de la necesidad de cada persona.

Estos son algunos de los servicios que se ofrecen:

- Estancia de día completo en el Centro de Día: incluye comida, merienda y cena
- Estancia de medio día: incluye comida y merienda o merienda y cena.
- Estancia de hora aislada.
- Baño geriátrico completo: incluye aseo completo, con corte de uñas, lavado de pelo, hidratación...

Adineko pertsonentzako hartzaindegi antzeko zerbitzua da.

¿Esta disponible todos los días de la semana?

Sí. El servicio se ofrece de lunes a domingo.

¿Cuál es el precio de estos servicios?

Depende del servicio que se solicite. Cada servicio tiene su propia tarifa.

Por ejemplo, un día laborable la estancia de día completo cuesta 23€.

¿Durante cuanto tiempo puedo hacer uso de este servicio?

Se puede utilizar siempre que se necesite, con una duración máxima continuada de 15 días.

Zaintzaileei beren gauzetarako denbora izatea ahalbidetzen zaie.

¿El servicio de transporte está incluido?

No, es la propia familia o persona cuidadora quien debe llevar y recoger a la persona usuaria al Centro de Día.

¿Dónde hay que realizar la solicitud?

La solicitud habrá que presentarla en la oficina de los Servicios Sociales de Base del Ayuntamiento de Urretxu, con una antelación de 24 horas.



_Euskara

Ikasturte berria: euskara ikasteko eta hobetzeko aukera berriak

Iraila-urria izaten da urtero kurtsoari hasiera emateko garaia. Udal euskaltegiak 2010-2011 ikasturteko eskaintza aurkeztu zigun irailean, berritasunez betetako eskaintza, beti ere herritarrek dituzten premia bereziei modu egokienean erantzuteko asmoz.

Ikus dezagun, bada, eskaintza orokorraren barruan, zeintzuk diren ikastaro edo ekimen berezienak:

- Transmisioa: gurasoei zuzendua, 100 orduko ikastaroa, astean bi egunetan, arratsaldeko lehen orduan.
- AISA: etorkinei zuzendua, 60 orduko ikastaroa, astean bi egunetan, goizean.
- Osakidetza: ospitaleko langileei zuzendua, 150 ordu, astean bi egunetan, arratsaldeko lehen orduan, 2. hizkuntza eskakizuna lortzea dute ikasleek helburu.
- Mintzalaguna: orokorra, 4-5 laguneko taldetan antolatuta, gidari baten laguntzaz, mintzapraktika egitea dute helburu; 11 talde osatu dira kurtso honetan, guztira 51 lagun. Dendariak: beste hiru talde osatu dira dendariekin; 9 lagun guztira.



- Irakurle taldea: 14 laguneko taldea; hilean behin elkartzen dira, aldeztatik irakurritako liburuen inguruan solasaldia egiteko, gidari baten zuzendaritzapean.

Horiez gain, ohiko moduan, euskalduntze-alfabetatze talde arruntak ari dira euskara ikasten; guztira 11 talde. Eta gainera, beste 45 ikasle autoikaskuntzan.

Horrenbestez 170 ikasle matrikulatu dira kurtso honetan udal euskaltegian.

Dendariak eta tabernariak saritzeko kanpaina



Urola Garaiko merkataritzan euskararen erabilera bultzatzeko planaren barruan, dendariak eta ostalariek euskararen alde

egiten duten ahalegina saritzeko kanpaina egin da azaroan.

Bezeroek botoa eman diete dendariei eta tabernariei, beti ere establezimenduan euskararen alde egindako saiakera kontuan izanik.

Urretxun, Zumarragan eta Legazpin gauzatu da kanpaina, eta horretarako boto-txartelak banatu ziren aldeztatik etxeko azaroaren lehen egunetan. Kanpaina bera, eta horri lotutako boz-keta, azaroaren 15etik 28ra bitartean egin da.

Bi modutan parte hartu ahal izan dute bezeroek bozketan: boto-txartela kutxa batean sartuz, eta internet bidez.

Urretxun eta Zumarragan okindegietan jarri dira kutxak (botoa eskuz eman nahi izan dutez), eta internetez, berriz, otamotz.com eta zingizango.com web guneen bitartez.

Herri bakoitzean 100 euroko hiruna sari eman dira, eta bozketan parte hartu dutenen artean zozketatu dira, boto gehien jaso duten establezimenduetan erosketak egiteko.

Abenduaren 3an, Euskararen Egunean, egin zen sari banaketa; Urretxun boto gehien jaso duten establezimenduak honako hauek: Jabier Ugarte harakina, Aitxu denda eta Osaba taberna.

Urretxu kirol txartela

Urretxuko Udalak datorren 2011 urterako kirol txartelaren formula berria jarriko du martxan. Hala ere, aldaketa garrantzitsu bat izango da kirol instalazioen erabiltzaileentzat. Izan ere, datorren urtean Udalak bereiztu egingo ditu kirol zerbitzuen erabiltzaileak; abonatuak prezio bat ordainduko dute eta abonatu ez direnek beste bat.

Ondorengo abantailak eta deskontuak lortzeko aukera ematen du txartel honek:

Doako erabilerak: Denboraldi osoan zehar udako igerilekura sarbidea, muskulazio eta kardiobaskular geletara sarbide libre, sauna eta lurrin bainua (erabilera arauen arabera), kantxako alokairuentzat doako sarrera...

Deskontuak: Jarduera gidatuak eta denboraldiko klase kolektiboak, eskaini litezkeen ikastaro trinkoak edo puntualak, pista alokairuak: kiroldegiko kantxan, udako jarduerak..

Beste abantaila batzuk: Pisten erretserbak erabilgarri dauden orduen arabera egin ahal izango dira, txartel bera erabili ahal izango da instalazio guztietara sartzeko, ordaintzeko erosoa, banke txeko helbideratze bidez, inskripzioa hiruhilabetekeo jardueretarako berritzeko aukera...

Kirol Txartelaren abonatu motak honako hauek izango dira:

- Heldua: 18 urtetik gorako pertsonak
- Haurra: 3 - 18 urte bitarteko pertsonak
- Ikaslea / Langabetua: Ondorengo egoeretan dauden pertsonak eskatu ahal izango dute:
 - Ikasle txartela duten ikasleak
 - Langabetu txartela indarrean duten pertsonak
- Jubilatua / Pentsioduna: Ondorengo egoeretan dauden pertsonak eskatu ahal izango dute:
 - Jubilatu / Pentsiodun egoeretan dauden pertsonak.
- Familiarra: Nahi duten familia guztiek eskatu ahal izango dute kirol txartel familiarra; hor-taz, familia-unitate berean diru-sarrerarik ez duten kide guztiei egingo zaie abonatu txartela, 23 urtetik beherako seme-alaba kopurua kontuan izan gabe.



Kirol Txartel hau urtekoa da, urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra, 4. hiruhilabetekean ere, urritik abendura bitartean egingo da. Txartel guztiek daukate urteko izaera, eta berritu egin beharko dira denboraldi batetik bestera.

Udaleko Kirol Zerbitzuek abonatuentzako eta ez abonatuentzako ikastaroen eskaintzaren berri emango dute; hiruhilabetekeo erabakiko dira.

Kiroldegiko ikastaroak hiruhilabetekeoak izango dira eta hasiera - amaiera data honako hauek:

- hiruhilabetekeo: Urtarrilaren 10etik apirilaren 1era
- hiruhilabetekeo: Apirilaren 4tik ekainaren 30era
- hiruhilabetekeo: Irailaren 20tik abenduaren 23ra

Udako Kanpaina:

Ekainaren 27tik - uztailaren 22ra

Kanpoko igerilekuaren denboraldia:

Ekainaren 11tik - irailaren 11ra

Kirol Txartelari buruzko informazio eta argibide gehiago, Aldiri Kiroldegian eta 943 03 80 92 telefonoan emango zaio nahi duenari.

Kultura

Herriko musika jardueraren hausnarketa prozesua martxan da

Urretxuko Udalak herriko musika jardueraren eta horretan herrian lanean ari diren agenteen inguruan parte-hartze prozesua sustatu du. Ekimena Gipuzkoako Foru Aldunditik bultzatzen ari den "Kudeatuz" programaren barruan kokatzen da. Honen bidez administrazioa eta herritarren arteko kolaborazio eredu berriak nahi dira aztertu eta herritarren parte hartze zuzena bultzatu.

Urretxun musika arloan egingo da hausnarketa hori, izan ere tradizio musikala oso handia izan da beti eta taldeak ugari. Horretarako Prospektiker enpresa arituko da lan dinamika zehatza garatzen taldeekin, talde banako bakoitzaren azterketa eta denon arteko harremana konbinatuz.

Hausnarketaren ardatza egungo udalerriko musika jardueraren nondik norakoak aztertzeaz gainera, gai honen inguruan identifikatzen diren ahultasun eta indarrak eztabaidatu eta etorkizunerako proposamenak jasotzea izango da, ondoren Udalari proposamen hauek helarazteko.

Hauek dira prozesuan parte hartuko duten taldeak: Benta Zaharreko Mutiko Alaiak, Goiargi, Goizalde eta Irimoazpi abesbatzak, Iparragirre Balerdi Musika Tailerra, Iratzarri Dultzainariak, Secundino Esnaola Musika Ikastetxea, Txistulari Elkartea, Urretxuko Txalapartariak, Zuhaitzaren Soina Kolektiboa eta MTM kolektiboa osatzen duten 15 taldeak.

Hona hemen proiektua aurkeztu eta gero jasotako iritzi batzuk:

- Josune Agirrerri, Secundino Esnaola Musika Eskolako zuzendariari, positiboa iruditzen zaio denon arteko hausnarketa egitea eta gaiak modu bateratuan aztertzea. Hala ere, bere ustez ideia honi iraunkortasuna eman beharko litzaioke eta aldian behin musika taldeen arteko bilerak bultzatu beharko

lirateke Udaletik. Izan ere, beraien arteko harremana egon badago, baina uneko kolaborazioak izaten dira, kontzerturen baterako edo. Koordinazioa, elkarlana, beste maila batera eraman beharko lirateke, denok kezkatzen gaituzten gaietan benetako eraginkortasuna izan dadin.

- Iparragirre Balerdi Musika Tailerreko zuzendaria den Jesús Castillejoren iritziz, herriko musika taldeen arteko harremanak hobetzeko balio duen edozein ekimen positiboa da. Urretxun musika arloan egiten den lanaren kalitatea eta kantitatea suspertzea aurrerapauso handia suposatzen du.
- Ibon Garmendia, txistularia, txalapartaria eta Benta Zaharreko Mutiko alaiak taldeen kidearen hitzetan, "Urretxun musikaren inguruan geldialdi bat egin eta egoerari buruz denok batera hausnartzea oso positiboa iruditzen zait. Batik bat behin ere egin ez delako eta egin den apurra tabernetan edo oso era informalean egin izan dugulako. Musikarion partetik (MUTAMUkoak eta beste talderen bat kenduta), sortze lanari ez diogula heltzen iruditzen zait. Musika-aren abenturazale gutxi dagoela iruditzen zait. Nire ustez hori gure herriko giro edo kulturari dagokio eta nolabait aldatzea gustatuko litzaidake. Horretarako egitura fisikoak garrantzitsuak izan badaitezke ere beste zerbait mugitu beharko litzateke."



Tokiko gobernu batzarra / Junta de gobierno local

2010_05_24

Gainzuri ikastetxea egokitze lanak 2. fasea: Aldaketa onartzea.

Erabaki da txosten teknikoan zehaztutako aldaketak egiteko baimena ematea Construcciones Mendiola, S.A. enpresari, hain zuzen ere hormaren eta lurzorua arteko junturaren impermeabilizazioa egitea, 6.675,23 euroko gastu gehigarria baimentzea, eta legearekin bat etorritik kontratistak behin betiko bermea egokitu beharko du; bermea 4.485 €-koa izango da.

Uraren Euskal Agentziari dirulaguntza eskaera: Ebazpena sendestea.

Aho batez onartzen da Uraren Euskal Agentziari dirulaguntza eskatzea honako ikerketak egin ahal izateko:

- Irimo mendiko hego-ekialdeko isuria egonkortzeko basoko kontrol hidrológico neurriak, injinerutza biologikoa erabiliz. Kostua: 23.500 euro, eta
- Irimo mendian basoko zaharberitze hidrológicoa eta hango arroko errekaetako zabaltzea. Kostua: 96.280 euro.

INMA egitasmoa: Dirulaguntza.

Aho batez erabaki da Osasun Berrikuntza eta Ikerketarako Euskal Fundazioari 2.000 euroko dirulaguntza ematea INMA proiekturako.

Goierriko Hitz: Dirulaguntza.

Erabaki da 2010eko aurrekontuaren kargura 10.489 euroko dirulaguntza ematea Goierriko Hitzari.

Diru ekarpena: Kilometroak 2010; Araba Euskaraz 2010; Ibilaldia 2010; Sortzen Ikasbatuz; Euskal Eskola Publikoaren festa.

Erabaki da 110 euroko diru ekarpena egitea aipatutako proiektu bakoitzari.

Herri Urrats 2010: Diru ekarpena.

Erabaki da 180 euroko diru ekarpena ematea.

Eudel-Txilerako: Dirulaguntza.

Erabaki da Garapen bidean dauden herrialdeen finantziatorako aurreikusitako aurrekontuen kargura, 2.000 euroko dirulaguntza ematea EUDELI.

Udaberriko kontzertuak.

Onartu da Udaberriko kontzertuen egitaraua eta Urretxuri dagokion gastua onartzea, hain zuzen ere 857,08 euro.

Udaleku irekiak: Esleipena.

Erabaki da Udaleku irekiak antolatzeke zerbitzu prestazioa, prozedura negoziatu bidez, Zerki enpresari esleitzea behin-behingo, ondorengo baldintza hauetan:

- Prezioa: 21.916 euro, gehi BEZA izango da; kopuru horretatik %40,62 Urretxuko Udalak ordainduko du.

Sarraldeko lokala musika taldeentzat egokitzea: Kontratu txikiaren esleipena.

Erabaki da 24.127,51 euroko gastua baimentzea egokitze lanei aurre egiteko.

Lanpostuen deskribapen fitxak. Onespena.

Erabaki da Urretxuko Udaleko lanpostuen deskribapen fitxak, LKS-k aurkeztutakoak, onartzea.

Fakturen zerrenda.

7 zk. duen fakturen zerrendaren berri eman da, 3.510,49 eurokoa; hori ikusirik, aho batez onartu da.

2010_06_21

Goierri K.E.: Dirulaguntza.

Erabaki da ondorengo diru laguntza hauek ematea:

- Txirindulari eskola proba.....250,00€
- 3x3 saskibaloia.....490,00€
- Elkartearen itsas arrantza Lehiaketa200,00€
- VII San Juan pelota txapelketa 2.000,00€

Urretxu-Zumarraga Herri kirol elkarteak: Dirulaguntza.

Erabaki da "Urretxuko Gizon Proba" egiteagatik 1.000 euroko dirulaguntza ematea.

Moto Krossa: Dirulaguntza.

Erabaki da moto-kros jarduerarako I.M.Z.ri 200 euroko diru ekarpena egitea.

Erabaki da karting jarduerarako I.B.G.ri 200 euroko diru ekarpena ematea.

San Joan jaiak: Egitaraua eta aurrekontua.

Erabaki da egitaraua eta 11.685,95 euroko aurrekontua onartzea.

Eguneko Zentroa garraioa: Faktura onartzea.

Erabaki da 6.507,77 euroko zenbatekoa ordaintzea Urola Garaia Mankomunitateari, 2010eko lehenengo hiruhilabetekoan zehar Eguneko Zentroari emandako garraio zerbitzuarengatik.

Elkarteak: Diru-laguntza.

Aho batez erabaki da 2010eko ekitaldiaren kargu, honako diru-laguntza hauek ematea ondoren agertzen diren elkar-teei:

| | |
|---------------------------|---------|
| Club Txolarte..... | 1.450 € |
| Club Txolarte..... | 1.327 € |
| Mairi..... | 1.471 € |
| Cruz Roja..... | 1.080 € |
| ACASGI..... | 864 € |
| IZAN (proyecto hombr..... | 1.152 € |
| EILUZ..... | 1.274 € |
| Aguifes..... | 1.111 € |
| Urgadiel..... | 1.600 € |
| APPALUR..... | 936 € |
| Eraldatzen..... | 1.447 € |
| Donantes de sangre..... | 720 € |
| Aspanovas..... | 504 € |
| Alcer..... | 648 € |
| Nagusilan..... | 648 € |
| Sindrome X fragil..... | 504 € |
| ATECE..... | 432 € |
| ACABE..... | 432 € |
| Itxaropen telefona..... | 200 € |
| ATCORE..... | 200 € |

Udako oporretan haurrak hartzea: Dirulaguntza.

Aho batez onartu da "Oporraldia Bakean" programari atxikimendua adieraztea eta 5.852 euroko zenbatekoa ordaintzea Euskadiko Ordezkaritza Saharaiarri, 5 haurren bidaieren kostuegatik. Hare Haizea Elkarteari Legazpiko aterpetxean hartuko dituzten neska/mutil saharaiarrak, udal irerilekura joateko 19 bono ematea eta garapen bidean dauden herrialdeen finantziatorako aurreikusitako aurrekontuen kargura diru-laguntza ematea ume erriusiar bat hartzeagatik:

| | |
|--------------|-------|
| M.A.U.A..... | 642 € |
|--------------|-------|

Azkenik garapen bidean dauden herrialdeen finantziatorako aurreikusitako aurrekontuen kargura diru-laguntza ematea bi ume ukrainiar hartzeagatik:

| | |
|-----------------------|-------|
| J.B.O. familia..... | 650 € |
| M.A.C.G. familia..... | 650 € |

Espetxeetarako garraioa: Laguntza.

Aho batez onartu da ondorengo zerrendan agertzen diren familiei diru-laguntza hauek ematea espetxeetarako garraioa dela eta:

| | |
|--------------|------------|
| J.M.A.O..... | 2.299,00 € |
| J.Y.L..... | 1.458,00 € |
| A.M.B..... | 1.998,00 € |
| T.H.G..... | 2.245,00 € |

Farmazien hitzarmena onartzea:

Adineko pertsonengan sendagaien erabilera hobetzea.

Erabaki da Urretxuko Udalaren eta Gipuzkoako botikarien Elkargoaren arteko lankidetzaz hitzarmena onartzea, hain zuzen ere Etxez etxeko laguntza zerbitzuko erabiltzaileen artean botiken erabilera optimizatzeke programa garatzeko.

Udal eraikinetako igogailuen mantenimendua zerbitzua: Behin-behineko esleipena.

Erabaki da Udal eraikinetako igogailuen mantenimendua zerbitzuaren prozedura negoziatua ULAAHI, S.A.U enpresari esleitzea behin-behingo. Prezioa 1.138 €, BEZ kanpo delarik.

Udal eraikin eta lokaletako argindarraren hornidura: Pleguak onartzea.

Erabaki da prozedura irekiaren eta tramitazio arruntaren bidez esleitzea kontratua eta dagokion gastua onartzea.

Kiroldegiko gimnasioa egokitzea:

Kontratu txikiaren esleipena.

Erabaki da

- Construcciones Mendiola, S.A. enpresari esleitzea, kontratu txikiaren modalitatean, gimnasio berria atea eta leihoak jartzeko lana, beti ere aurkeztutako proposamenaren arabera.Prezioa, 6471,22 euro.

- Carpinteria Izaspi, S.L. enpresari esleitzea, kontratu txikiaren modalitatean, kiroldegian gimnasio berria egokitzeke egin behar diren arotz-lanak, beti ere aurkeztutako proposamenaren arabera, 680,07 euroko prezioarekin.

- Cristaleria Goiherri, S.L. etxeari esleitzea, kontratu txikiaren modalitatean, kiroldegiko gimnasioa egokitzeke eta paretan zilar-ispilua jartzeko egin behar diren lanak, beti ere aurkeztutako proposamenaren arabera, 1.162,55 euroko prezioarekin. eta ondorengo baldintzetan:

- Kirol aukera enpresari esleitzea, kontratu txikiaren modalitatean, kiroldegiko gimnasio berria lurreratu eta jartzeko egin behar diren lanak, beti ere aurkeztutako proposamenaren arabera, eta 3.232,74 euroko prezioarekin.

Zumarraga Urretxu UTE: Mugitegiko D bidean, 32 zkian biltegi eta garajetarako jarduera espedita: jarduera eta obra baimena

Erabaki da Mugitegi Industrialdeko D bidean, 32 zkian dagoen pabiloian biltegi eta garajetarako jarduera eta obra baimena ematea Urretxu y Zumarraga UTE enpresari.

Udaletxeko berrikuntza lanak, 1. fasea: Behin behineko esleipena: ebazpena sendestea.

Erabaki da CONSTRUCCIONES MENDIOLA S.A. enpresari esleitzea Udaletxeko birgaitze obrak (1 fasea, hain zuzen ere 2010-05-31n berretsitako eskaintzan jasotako baldintzetan, eta honako prezioan: 396.079,37 euro.

Jauregi 10. zkian (Gaztetxokoa) dagoen lokala egokitzeke obrak: Ebazpena berrestea.

Erabaki da Jauregi 10. zkian (Gaztetxokoa) dagoen lokalen egingo diren obrak onartzea.

Kultur taldeei dirulaguntzak: Ebazpena sendestea.

Erabaki da 2010eko ekitaldiaren kargu, honako diru-laguntza hauek ematea ondoren agertzen diren kultur elkartei:

| | |
|---|-------------|
| Secundino Esnaola Musika Eskola..... | 21.692,90 € |
| Goi Argi Abesbatza..... | 740,91 € |
| Berto Eskola..... | 1.746,66 € |
| Cine Club Butak 21..... | 3.224,82 € |
| Txiribirri taldea..... | 1.070,34 € |
| Aldaketa Filatelía Numismatika..... | 162,48 € |
| Karmakros antzerki taldea..... | 609,30 € |
| Sociedad Argazkia..... | 1.096,74 € |
| Ostadar Mendi Taldea..... | 406,20 € |
| Z-U-Gaztetxea..... | 1.862,02 € |
| Iparragirre Balerdi Musika tailerra..... | 13.666,00 € |
| Harzipi..... | 600,00 € |
| Lekai..... | 4.500,00 € |
| Txistulari elkarteak 50. urteurrena..... | 6.500,00 € |
| Lizarriturri eta Iratzarri..... | 5.024,15 € |
| Lurra dantza taldea..... | 2.497,42 € |
| Xipi..... | 600,00 € |
| Herri Kirol elkarteak San Juanetako jaialdia..... | 1.050,00 € |
| Lurra dantza taldea Dantzari txiki..... | 2.597,00 € |
| Kkin zona..... | 600,00 € |

Kirol elkartei dirulaguntzak: Ebazpena berrestea.

Erabaki da 2010eko ekitaldiaren kargu, honako diru-laguntza hauek ematea ondoren agertzen diren kirol elkartei:

| | |
|-------------------------------|-------------|
| Urola Futbol..... | 10.093,07 € |
| Urola Eskubaloi..... | 6.590,29 € |
| Goierri Aretu Futbol..... | 3.069,45 € |
| Goierri Zikloturismo..... | 2.181,12 € |
| Goierri Saskibaloia..... | 10.887,52 € |
| Goierri Xakea..... | 476,67 € |
| Triatlón..... | 2.581,95 € |
| Goierri Mendi Sails..... | 4.200,53 € |
| Goierri Pelota Sails..... | 3.333,75 € |
| Goierri Ehiza..... | 2.089,15 € |
| Goierri Arrantza..... | 1.460,18 € |
| U.Z.Herrikirolak..... | 406,27 € |
| Goierri Garaia Atletismo..... | 4.027,17 € |

Faktura zerrenda.

9 zenbakia duen fakturen zerrendaren berri eman da, 42.208,65 eurokoa; hori ikusirik, aho batez onartu da.

2010_07_19

Nafarroa Oinez 2010: Diru-ekarpena.

Erabaki da 180 euroko diru ekarpena ematea.

Goierri K.E.ri dirulaguntza: Urretxu Sari Nagusia.

Erabaki da 500 euroko diru-laguntza ematea "IV. Urretxu Saria" Junior maila txirindularientzat egiteagatik.

Goierri K.E.ri dirulaguntza:

Elkarteko plater tiraketa.

Erabaki da Goierri, K.E.ri 300 euroko diru-laguntza ematea.



Beteranoentzako VI. Futbol txapelketa, Musti Mujikaren oroimenez: Dirulaguntza.

Erabaki da "Musti Mujikaren oroimenez" beteranoentzako VI futbol txapelketa egiteko 150 euroko dirulaguntza ematea.

Rally denboraldia: Dirulaguntza.

Erabaki da Eskatutako diru-laguntza ukatzea I.J.E. jaunari, izan ere eskatzaileak ez du bete diru-laguntzak emateko ordenantzan eskatutako baldintzetako bat, hain zuzen ere Udalarekiko betebeharetan egunean egotearen baldintza.

"Gipuzkoaren jatorria" ikus-entzunezkoa:

Diru-ekarpena.

Aho batez onartu da "Motaka Gaztelua elkarte kulturalari 300 euroko diru-ekarpena ematea.

Urretxuko II. azoka ekologikoa.

Erabaki da egitaraua eta aurrekontua onartzea, 2.233,50 euro.

Schwarzenbruck, Kezel eta Urretxuko gazte topaketa: Egitaraua eta aurrekontua.

Erabaki da Schwarzenbruck, Kezel eta Urretxuko gazte topaketaren egitaraua eta 8.778,57 euroko aurrekontua onartzea.

Promociones Kalebarren, S.L.: Iparragirre 24an etxebizitzak egiteko obra-baimena.

Erabaki da Iparragirre kaleko 24 zenbakian etxebizitzak, lokalak eta garajeak eraikitzeko obra-baimena ematea baldintza batzuekin.

Gaztetxokoaren kudeaketa: Behin-behineko esleipena.

Erabaki da Gaztetxokoaren kudeaketa, prozedura irekiaren bidez, KARRIKA enpresari esleitzea behin-behingo. Prezioa: 83.000 euro, gehi BEZa izango da; kontratu honi dagozkion zerbitzuak Urretxu eta Zumarragako Udalen artean finantzatu dira, proportzionalki, beti ere udalerrri bakoitzaren biztanle kopuruaren arabera.

Jauregi 10ean dagoen lokala (gaztetxoko) egokitzeko obrak. Behin-behineko esleipena: ebazpena sendestea

Erabaki da CONSTRUCCIONES ARTZAMENDI S.A. enpresari esleitzea behin-behingo. Jauregi 10ean dagoen lokala (Gaztetxoko) egokitzeko obrak. Prezioa: 29.297,58 euro, Bez kanpo delarik.

Basagasti eta Nekolaldeko eskaileren konponketa, eta Labeaga eta Nekolaldeko arrapalen konponketa: Kontratu txikiaren esleipena.

Erabaki da Construcciones Mercí enpresari esleitzea, Basagasti eta Nekolaldeko eskaileren konponketa eta Labeaga eta Nekolaldeko arrapalak konpontzeko lana, beti ere aurkeztutako proposamenaren arabera. Prezioa: 11.414,14 euro.

Gainzuri ikastetxeko obrak egiteko dirulaguntza eskaera: Ebazpena sendestea.

Erabaki da Gainzuri Ikastetxe Publikoan egokitzapen lanak egiteko diru laguntza eskatzea Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari, hain zuzen ere honako obra hauek eraikitzeke: berogailuaren hodiak isolatzea; ur-filtrazioak kentzea; atek egokitzea eta atezaintza, zuzendaritza, irakasle gela eta gela berria egokitzea.

Iparragirre 38an dagoen lokalaren erosketa.

Aho batez onartzen da ebazpen honetan azaldutako eta deskribatutako lokala erostea Promotalde-Urrateberri UTE enpresari, prezio honekin prezioa 108.000 eurokoa izango da.

Faktura zerrenda.

11 zenbakia duen fakturen zerrendaren berri eman da, 15.578,07 eurokoa; hori ikusirik, aho batez onartu da.

2010 09 13

Santa Anastasia jaiak: Egitaraua eta aurrekontua.
Erabaki da Santa Anastasia jaietako egitaraua eta aurrekontua onartzea, 139.564,94 euro.

Udal-erakinetak berogailurako gasolioaren hornidura: Pleguak onartzea.

Udal-erakinetak berogailurako gasolioaren hornitzeko kontratazioa, prozedura ireki eta tramitazio aruntaren bidez egingo dena, arautuko duten Klausula Administrazio Partikularren eta Teknikoen plegua ikusirik erabaki da: Prozedura irekiaren eta tramitazio aruntaren bidez esleitzea kontratua, prozedura irekia arautuko duten Baldintza Administrazio Berezien eta Teknikoen Plegua eta dagokion gastua onartzea.

Santa Barbarako errepidean hirigintza lanak: Basagasti-Mundo Mejor zatia: Pleguak onartzea.

Erabaki da prozedura irekiaren eta tramitazio aruntaren bidez esleitzea kontratua.

Santa Barbarako depositoa:

Lursailak okupatzea: onespina

Hitzarmena, aho batez onartzen dena: J.I.I.E jaunak Urretxuko udalari baimena ematen dio ur depositua eraikitzeke behar diren lurrez segituan jabetzeko. Urretxuko Udalak, ur deposituaren eraikitzeke behar diren lurretan lurretan lehenago alpatutako hobekuntzak egingo ditu.

Urretxuko Udalak ur depositua egiteko behar duen lur muturra J.I.I.E jaunari erosten dioenean egingo den erregulazioarekin batera, lur-zatiaren salerosketa prezioaren eta Irastorza jaunaren lurretan egiten diren hobekuntzen zenbatekoaren arteko diferentziaren likidazioa egingo da.

Iparragirre 4ko jabekideak:

Eraikina berritzeko obra baimena.

Honako hau erabaki da Iparragirre kaleko 4. zenbakia duen etxebizitza-erakineko jabeek eraikina berritzeko obra-baimena ematea.

Patatas Galdeano, S.L: Mugitegiko C bidean 8,9, eta 10 zenbakietan patata biltegi jartzeko jardueraren espediente:

tokiko Gobernu Batzarren txostea.

Tokiko Gobernu Batzar honen iritziz bidezkoa da eskatutako baimena ematea, beti ere hartu beharreko neurri zuzentzaileak hartzen baldin badira.

Bacalaos Monedero, S.L.U. Mugitegiko E bidean 14 zkian jardueraren handitzeko baimena eta obrak legezztatzea.

Erabaki da Mugitegi Industrialdean, E bidean 10-12-14 zkian behean bakailu gaziaren biltegiaren jardueraren baimena ematea eta egindako obrak legezztatzea.

Oinezkoentzako pasabideak altxatzeko lanak: Kontratu txikiaren esleipena:

Ebazpena sendestea.

Erabaki da Asfaltos Urretxu, S.A. enpresari esleitzea Oinezkoentzako pasabideak altxatzeko eta trafikoko beste zenbait lan egiteko. Kontratuaren prezioa 15.226,54 € + 2.740,78 € BEZ = 17.967,32 €, beti ere uztailaren 22an aurkeztutako 33 zenbakiko aurrekontuaren arabera.

Kultur Etxeko komunikazio sarea hornitzea eta jartzea: Kontratu txikiaren esleipena:

Erabaki da Mctelecom enpresari esleitzea "Kultur Etxeko komunikazio sarea jartzea. Kontratuaren prezioa: 6.238,61 €

Udaletxeko berogailua gasolio ordez gasarekin jartzea: Kontratu txikiaren esleipena: Ebazpenaren sendestea.

Erabaki da Lasurtegui Atxeki, S.L.ri esleitzea udaletxeko berogailua gasolio ordez gasarekin jartzeko lana, kontzeptu hauekin:

Gas naturalaren instalazioa, uztailaren 28ko aurrekontuaren arabera: 6.490 euro.

Erregailua aldatzea, uztailaren 8ko aurrekontuaren arabera: 5.489,36 euro.

Deposituaren neutralizazioa, uztailaren 8ko aurrekontuaren arabera: kontzeptu finkoa: 2.265,6 euro.

Fatxadak margotzeko programa:

Dirulaguntza San Martin 10-11 eta Jauregi 17an San Martin 10-11

San Martin 10-1ko jabekideek 18.091 euroko aurrekontua aurkeztu dute eta erabaki da 1.809,10 euroko dirulaguntza ematea, aurrekontuaren %10ari dagokiona.

Jauregi 17

Jauregi 17ko jabekideek 4.930 euroko aurrekontua aurkeztu dute eta erabaki da 493 euroko dirulaguntza ematea, aurrekontuaren %10ari dagokiona.

Pub Dublin House: Titularitatea aldatzea

Erabaki da Kalerrotan kokaturik dagoen Pub Dublin Housen titularitasuna aldatzeko baimena ematea IM.A.P.U y Otro. C.B.ri honako baldintza hau bete beharko duelarik:

Jarduerak dirauen bitartean, proiektuan jasotako eta bere egunean ezarri zitzaizkion neurri zuzentzaile guztiak bete beharko dira; hori guztia titularren erantzukizuna izango da.

14.- Faktura zerrenda

14 zenbakia duen fakturen zerrendaren berri eman da, 76.463,12 eurokoa; hori ikusirik, aho batez onartu da.



Diru-laguntzak krisi garaian

Kizkitza Ugarteburu



Krisi ekonomikoa dela eta, familia gehiagok eskatu dituzte diru-laguntzak Urretxun. Askotan entzuten ditugu gure kaleetan komentarioak diru-laguntzen onuradunei buruz: etorkinei edo ijitoei bertakoei baino gehiago laguntzen zaiela... Datuek, ordea, kontrakoa adierazten dute, bertako familiak dira onuradunen gehiengoa.

Urretxuko Udalak, Gizarte Ekimeneko Sailaren bitartez, 4 diru-laguntza mota kudeatzen ditu:

- Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE).
- Gizarteratzeko diru-laguntza.
- Etxebizitza gastuetarako prestazio osagarria (DSBEren titularentzat).
- Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL).

Diru Sarrerak Bermatzeko Errentari dagokionez, beste batzuen artean ondorengo 3 baldintza hartzen dira kontuan: familiako kide kopurua, diru sarrerak eta ondarea. Onuraduna izan ahal izateko derrigorrezkoa da urtebetez EAEn errolatua egotea. Urretxuri dagokionez, 74 bizikidetza unitatek jaso dute diru-laguntza hau aurten, hauetatik 21 dira etorkinak, %28a. Ijito

familia bakarrak jaso du diru-laguntza mota hau Urretxun.

Gizarteratzeko diru-laguntzetarako beharrezkoa da 6 hilabetez Gipuzkoan errolatua izatea, eta jasotzen den kopurua aurrekoa baino txikiagoa da. DSBE bezalaxe, laguntza honen eskaerak Aldundira bideratzen dira, eta beronek onartu edo atzera botatzen ditu.

Etxebizitza gastuetarako prestazio osagarria, 2010eko urtarrietik banatzen da eta DSBEren onuradunei baino ez dago zuzendua. Gehienez alokairuaren %70a estaltzen du. 22 urretxuar dira gaur egun prestazio honen onuradun.

Hiru diru-laguntzen kasuan, lanean egoteak eragina du,

lan-pizgarriak aplikatzen dira, hala lanean dagoena "sarituz". Bestalde, edozein laguntza jaso ahal izateko, beharrezkoa da INEM-en eta LANBIDEn izena emanda egotea.

Gizarte Larrialdietarako Laguntzek (GLL) une jakin batean sor daitekeen gastu bati aurre egiten laguntzen dute. Kasu hone tan ere, kontutan hartzen dira, besteak beste, bizikidetzaren unitateko diru sarrerak, ondarea eta familiako kide kopurua eta beharra zenbaiterainokoa den baloratzen da. Hiru hilabeteko ordaintzen dira laguntza hauek Urretxun. Azken hiru hilabeteet

tan onuradunak kontzeptuak honakoak izan dira: alokairu gastuetarako 17 familia, hipotekaren interesei aurre egiteko 9, mantentze gastuetarako 59 familia, etxeko konponketetarako familia bakarra eta oinarritzko beharretarako 4 familia.

Laguntzak jasotzearen iruzur egiteko prest dauden pertsonak beti daude, baina gaur egun, udalek ogasuneko datuak kontrolatzen dituzte, eta ondorioz, azkar harrapatzen dira diru-sarrerak edo ondarea ezkutatu nahian dabiltzanak. Aldundiak ere azterketa zorrotza egiten du laguntzak onartu aurretik.



Según los datos ofrecidos por el departamento de Servicios Sociales del Ayuntamiento de Urretxu, son las familias autóctonas y no las inmigrantes, las que más se benefician de las prestaciones.

74 unidades convivenciales se han beneficiado de la prestación Renta de Garantía de Ingresos; de éstas 21 son extranjeros, un 28 %. Una única familia gitana ha recibido ayudas de este tipo en Urretxu.

Es necesario estar empadronado en Gipuzkoa 6 meses para poder optar a la Ayuda Económica para la Inclusión Social.

En cuanto a la prestación complementaria de vivienda, cubre como máximo el 70% del alquiler y 22 urretxuaras han obtenido esta ayuda.

Por último, las Ayudas de Emergencia Social se destinan a paliar contingencias extraordinarias.

Laguntzen gehieneko zenbatekoak 2010. urtean

| | Gehienekoak kide kopuruaren arabera | Hilean | Urtean | Pentsiodunak urtean | Pentsiodunak urtean |
|--|-------------------------------------|--------|--|---------------------|---------------------|
| Diru sarrerak bermatzeko Errenta (DBE) | 1 | 650,19 | 7.0802,28 | 738,85 | 8.866,20 |
| | 2 | 834,90 | 10.018,80 | 923,56 | 11.082,72 |
| | ≥3 | 923,56 | 11.082,72 | 997,45 | 11.969,40 |
| Gizarteratzeko diru laguntza | 1 | 520,15 | 6.241,80 | ----- | ----- |
| | 2 | 667,92 | 8.015,04 | ----- | ----- |
| | ≥3 | 738,85 | 8.866,20 | ----- | ----- |
| Etxebizitza gastuetarako prestazio osagarria (DBEren titularrentzat) | Gehieneko orokorra | | Gehienekoa 2 edo 3 seme alaba gehiago kargura edo ordaindutako lana duenean hilean | | |
| | 250,00 | | 320,00 | | |

Urretxuarren iritzia / Preguntas al ciudadano

Maite Quevedo - M.^a Carmen Viedma

Ezagutzen al dituzu Udalak behar ekonomikoei aurre egiteko eskaintzen dituen diru-laguntzak? Zer iruditzen zaizu hauen kudeaketa?

JAVIER CALZADA



Diru-laguntza desberdinak daudela badakit. Kudeaketaren inguruan iruditzen zait benetako egoera ez dugula ezagu-tzen. Sarri diogu behar ez dutenek jasotzen dituztela, baina ziur, hala behar duelako, diru-laguntza jaso duen jende ugari dagoela eta laguntza jaso izana isilik gordetzen dutenez, ez garela enteratzen.

“Ziur, hala behar duelako, diru-laguntza jaso duen jende ugari dagoela.”

MONICA POGASEAN

“Yo, si cumpliera los requisitos, sí que solicitaría ayuda económica.”

Con la actual situación económica la necesidad de la gente ha aumentado y cada vez será más la gente que no pueda llegar a fin de mes. No conozco las ayudas que facilita el Ayuntamiento y, por lo tanto, no puedo decir si están bien o mal gestionadas. Tampoco sé qué requisitos debe cumplir una familia para poder solicitarlas. Yo, si los cumpliera, sí que solicitaría ayuda económica.



FELIX CALLEJO



No conozco el tipo de ayudas que da el Ayuntamiento. Supongo que con la situación actual habrá aumentado el número de personas que las solicita. Yo, si tuviera necesidad, sí que pediría ayuda. De todas formas, respecto a este tema, creo que mucha de la gente que va al ayuntamiento a pedir ayuda, realmente no lo necesita.

“Mucha de la gente que va al ayuntamiento a pedir ayuda realmente no lo necesita.”

JOSE M^a KEREJETA

Laguntzak daudela badakit, baina egia esan ez dut gaia ezagutzen. Ez dakit ondo banatzen diren, baina ziur ondo banatzen ahalegintzen direla, hori ez dut zalantzan jartzten. Dena den, hortan dihardutenek ez daukate lan erraza. Izan ere, laguntzak oso ondo daude, baina ondo banatzen diren bitartean, eta hori da zailena. Ondo banatze-ko benetan behar duenak eskaera egin behar du lehenbizi.



“Ez dakit ondo banatzen diren, baina ziur ondo banatzen ahalegintzen direla.”



¿Conoce las ayudas que ofrece el Ayuntamiento para hacer frente a las necesidades económicas? ¿Qué opina sobre la gestión de las mismas?

M^a CARMEN MARTIN

Ez dut diru-laguntzengaita ezagutzen, izan ere orain arte behintzat ez dut eskatzeko beharrik izan. Ongi iruditzen zait Udalak krisiari aurre egiteko diru-laguntzak ematea, benetan hala behar bada. Baina, hain zuzen ere, hori izaten da arazoa askotan, benetan behar duenari ematen zaizkion ala ez. Baina noski, banaketa justua izan dadin beharra duenak eskatu egin behar du lehenago.

“Banaketa justua izan dadin beharra duenak eskatu egin behar du lehenago.”



MARKOS IDIGORAS

Bai, zehazki ez dakit zein laguntza diren baina badakit Udalak hainbat diru-laguntza eskaintzen dituela eta ondo iruditzen zait; baina noski, behar duenari soilik eman behar zaio diru-laguntza eta arazoa horrek eragiten duela iruditzen zait. Badira laguntza eskatzera berehala joaten direnak, baina benetan behar duten beste askok eskatzera ausartzen ez direla iruditzen zait niri.



“Behar duenari soilik eman behar zaio laguntza eta arazoa horrek eragiten duela iruditzen zait.”

ARANTXA BARRIO

Badakit Udalak laguntza desberdinak eskaintzen dituela eta pentsatzen dut, ahal duena egingo duela banaketa justua izateko. Dena den, ez da erraza izango eta gainera, banaketa justua izatea ez dago guztiz Udalaren esku, diru-laguntzak ondo banatuta egoteko, jasotako eskaerak benetako diru premia duen jendearenak izan behar direlako eta agian asko ez direla eskatzera ausartzen.

ESPERANZA DOMINGUEZ

“Lo bueno sería que no le hiciera falta a nadie pedir nada.”



Aunque he oído hablar de las ayudas para hacer frente a la crisis, gracias a Dios no hemos tenido la necesidad de pedir nunca y no sé cómo funciona el tema. En caso de tener necesidad sí que acudiría a pedir las, que para eso están. De todas formas, lo bueno sería que no le hiciera falta a nadie pedir nada, pero ¡eso sí que es difícil, y más hoy en día.!



“Banaketa justua izatea ez dago guztiz Udalaren esku.”

Erregistratutako langabezia Urretxun

Aztiker

Zenbat Urretxuar daude langabezian erregistraturik?
Horietakoak, zenbat dira emakumezkoak eta zenbat dira gizonezkoak?
Goierri eta Gipuzkoarekin konparaturik, zein da aldea?

Erregistratutako langabezia. Urretxu, 2010-IX


Argitaratutako azken datuen arabera, Urretxun erregistratutako langabetuak 375 dira. Argitaratutako aurreko datuarekin konparatuta, hots, 2010eko abuztuko datuarekin konparatuta, 6 pertsona gutxiago dira. Aldiz, justu

duela urtebeteko datuekin alderatuta, 2009ko iraileko datuekin alderatuta, 29 pertsona gehiago dira erregistratutako langabetuak 2010eko irailean.

| Eremua | Urtea | Langabetuak | Aldea aurreko hilabetearekiko (2010-VIII) | Aldea aurreko urtearekiko (2009-IX) | Aldea aurreko hilabetearekiko % | Aldea aurreko urtearekiko % |
|---------|-----------|-------------|---|-------------------------------------|---------------------------------|-----------------------------|
| Urretxu | 2010 - IX | 375 | - 6 | 29 | -1,6 | 8,4 |

Erregistratutako langabezia. Sexuaren arabera. Urretxu, 2010-IX


| Urtea | Sexua | Langabetuak | Langabetuak % |
|---------|-------------|-------------|---------------|
| 2010-IX | Emakumeak | 214 | 57,1 |
| 2010-IX | Gizonezkoak | 161 | 42,9 |
| 2010-IX | Guztira | 375 | 100,0 |



375 pertsona horietatik, gehienak emakumezkoak dira. 214 urretxuar emakumezkoak dira langabezian erregistratuak daudenak, 2010eko iraileko datuarekin. Gizonezkoak berriz, 161 dira, bi sexuen arteko aldea ia %15koa delarik.

Erregistratutako langabezia. Urretxu - Goierri - Gipuzkoa alderaketa, 2010-IX

| Eremua | Urtea | Langabetuak | Aldea aurreko hilabetearekiko | Aldea aurreko urtearekiko | Aldea aurreko hilabetearekiko % | Aldea aurreko urtearekiko % |
|----------|-----------|-------------|-------------------------------|---------------------------|---------------------------------|-----------------------------|
| Urretxu | 2010 - IX | 375 | - 6 | 29 | -1,6 | 8,4 |
| Goierri | 2010 - IX | 3.508 | - 43 | 307 | -1,2 | 9,6 |
| Gipuzkoa | 2010 - IX | 38.904 | 176 | 1.705 | 0,5 | 0,5 |



Urretxun erregistratutako langabezia kopurua, 375 dela esan dugu, eta Goierri eskualdean berriz, 3.508 pertsona daude langabezian erregistraturik. Gipuzkoan erregistratutako langabetu kopurua 38.904koa da.

Aurreko hilabetearekin, 2010eko abuztuko datuekin konparatuz gero, Urretxun eta Goierri langabetuen jaitziera neurri beretsuan eman da, Urretxun, %1.6 langabetu gutxiago daude (6 pertsona gutxiago), eta Goierri eskualdean, %1.2 gutxiago daude (43 pertsona gutxiago). Gipuzkoarekin alderaturik ordea, ikus daiteke Gipuzkoan 2010eko irailean erregistratutako langabetu kopurua igo egin dela %0.5ean.

Aurreko urtearekin konparatuz gero, hots, 2009ko iraileko datuekin konparatuz gero, hiru eremuetan handitu da erregistratutako langabetuen kopurua. Kasu honetan, Urretxun eta Goierri, handitu da aurreko urteko kopurua: Urretxun %8.4 gehiago dira, eta Goierri, %9.6 gehiago. Gipuzkoako kopurua berriz, handitu egin da, baina proportzio txikiagoan: %0.5 gehiago, 2009ko irailekin konparatuta.

Kaixo Gazte / Kaixo Joven

Miriam eta Andoni Gazte bidean

Ana Isabel Iturbe

Hemen aurrean dituzuen gaztetxoak Miriam Inza eta Andoni Aranburu dira, Garaialde Lizeoko DBH 4ko ikasleak.

Duela gutxi protagonista, logotipo lehiaketa batean irabazle suertatu baitira, bi herriek antolatutakoa hain zuzen ere. Lehiaketaren oinarria "Gazte Bidean" izeneko proiektua izan da, herriko nerabeei zuzendua dagoena.



"Plastikako irakasleak komentatu zigun lehiaketa bat zegoela, eta parte hartzera animatu ginen, ekainean aurkeztu genuelarik". Bien logotipoa gus-tatu zitzaenez, elkarrekin berri bat sortzea erabaki zuten, eta horretarako Pedro Narbaizaren laguntza izan zuten, haren ondoan gauza asko ikasiz.

"Irabazteak ematen duen pozarekin batera, ordenagailu bidezko lanketa oso interesgarria iruditu zaigu, mundu horretara hurbiltzeko aukera eman digu honek" diote.

Miriami asko gustatu zaio "mundu" hori, Andonik ordea ez du bere burua etorkizunean bertan ikusten. Eskolaz kanpo ordenagailuan ere ibiltzen diren horietakoak ditugu, batez ere Miriam "photoshop"ean ibiltzea, salseatzea asko atsegin dut"; Andonik nahiago du irakurtzea, marraztea...

Aupa bikote, jarraitu orain arte bezala, atsegin duzuen horretan gogotsu, ikasten, herri mailan parte hartzen, eta ongi pasatzen!

Aritz Egea

Ana Isabel Iturbe

Betidanik izan du gustuko Aritzek kirola egitea, Ikastolan eskola kirola egiten hasi eta 12 urterekin hasi zen lehiaketetan parte hartzen, atletismoan hain zuzen ere.

14 urterekin ordea, txirrindularitzari ekin zion Goierri taldean. Bere pasioa beti izan da bi gurpiletan aritzea, nahiz eta berak dioen korrikan ibiltzen dela ondoen.

Afizio baino betebeharraren moduan hartzen du kirola, bere ustez serio hartu beharreko zerbait baita.

Bere egun arrunt bat kirola eta lanaren artean banatzen du, "batzutan agobiatuta senti naiteke, baina gustora egiten dudanez..." dio. Goizean Arrasateko Unibertsitatean dabil Doktoretza ateratzen, arratsaldea entrenatzeko erabiltzen du.

Urrian Hawain egon da, bertako Ironmana egiten asko disfrutatu duela dio. Estatu mailatik 25 gizonetako

parte hartu zuten, horietatik 5 gipuzkoar, bere adinekoen artean 11. iritsi zelarik.

Triatloian aritzea "erronka" moduan hartzen du, norberaren hobetzean, eta hori gustuko du. Bestetik, gauza asko alde batean utzi behar ditu, hau da, lagunekin edo neskalagunarekin ibiltzea, planak egitea...

Gogotsu oroitzen dituen lasterketak, alde batetik Zarautzeko bere lehengoa 23 urterekin, eta duela gutxi parte hartutako bi Ironmanak izan dira, Alemaniakoa eta Hawaiakoa.

Noiz arte? "Seme-alabak izan edo lanak uzten didan arte jarraituko dut, ez dut gustuko gauzak erdizka egitea. Bitartean hor jarraituko dut, lasterketak edo beste Ironmanen bat prestatzen..."

Jarraitu, bada, atsegin duzuna egi-



ten, aprobetxatu zure talentua, eta animo Ariz, beste lehiaketa askotan ikusi nahi zaitugu irabazle. Aurrera gazte!

Irimo Azpi: 25. urteurrena. ZORIONAK!

M.ª Carmen Viedma



Duela 25 urte eman genion hasiera gure ibilbideari Lourdesko Ama Parrokiako abesbatza gisa, edo hobeto esanda, liturgiako animatzaile gisa, horixe izan baitzen gure lehenengo konpromisoa.

Aita Roman izan genuen lehen zuzendaria, eta berak izan zuen abesbatza sortzeko ideia. Hasiera batean 6 lagun ginen bakarrik, baina pixkanaka-pixkanaka gero eta gehiago. Ahoz ahokoa erabili genuen.

Aldarearen alboan abesten genuen, normalean hilaren lehen igandean, eta horrez gain, bataioetan, hileta-elizkizunetan eta egun seinalatuetan:

Gabonetan, Aste Santuan, Korpus Egunean, Andre Maria Sortzez Garbiaren Egunean, Gurutzeko San Pablo Egunean, Parrokiaren Egunean, e.a. Eta egun bereziena, gure zaindari Lourdesko Amatzoren Egunean.

Zortzi urte eta gero, alde egin zuen Aita Romanek, eta Aita Ruben etorri zitzaigun; eliza kalera ateratzeko animatu gintuen Rubenek; Santa Ageda Egunean, auzoan zehar, eta Olentzero Egunean, baserrietatik, kantatzen genuen. Geroago giotze taldea sortu zen, jarduera horietaz eta Geltokietako jaietan auzoko zaharrei egiten zaien omenaldiaz arduratzen dena, azken hori Gabonetako eskean lortzen dugun diruarekin finantziatzen duguna. Batzuetan herriko abesbatzekin kolaboratu dugu Santa Zezilitan eta diska batzuen grabaketan, baina beti herri mailan eta parrokiako abesbatza garela ahaztu gabe.

Ezin dugu, ez, Aita Eugenio ahaztu, misioetan denboraldi luzea egin ondoren Urretxura atsedean hartzea etorri zena. Rubenek proposatu zion abesbatzan laguntzea, eta gustura egin zuen gainera. Dezente exijitzen zigun, -ez dut asmatikorik nahi-, esaten zigun arnasa behar bezela hartzen ez genuenean. Aurrepizira begiratu eta bagenekien noiz ari ginen ondo eta noiz ez.

Ruben bazihoan eta zuzendaririk gabe geratuko ginen; baina Ionak Gabiriako parrokiako Joseba Murua ezagutzen zuen, hura ere pasiotarrek atenditua, eta gure taldea zuzentzeko gonbidapena egin zion.

Musikalitate kontuak tarteko, Josebarekin koruan abesten hasi ginen. Noizbehinka irteten genuen kontzerturen bat edo beste ematera; Irunen eta Gasteizen izan gara, beti Parrokiarekin lotuta, gure abesbatzak parrokiarekin eta geltokietako auzoarekin baitauka lotura. Ezkontzetan ere abestu izan dugu, batez ere abesbatzako kideen seme-alaben ezkontzetan.

Josebak gurekin jarraitu zuen Urretxun bizi izan zen bitartean; gero, Nerea Madina auzokideak eta solfeo ezagutza haundia duenak hartu zuen zuzendaritza, izugarritzko goxotasun eta pazientziarekin hartu ere.

Azkenik, duela 8 urte, Goetzon Muru iritsi zitzaigun Irundik. Nobizio zela ezagutu genuen, eta Nereak zuzendaritza utzi zuenean gustura hartu zuen kargua Gotzonek. Geurekin urte askoan jarraitzea espero dugu.

Une honetan 35 bat lagunek osatzen dugu abesbatza, eta ateak zabalik ditugu sartu nahi duten guztientzat. Animo, jende berria behar dugu eta!.

Eta ezin dugu aipatu gabe utzi, modu batera edo bestera, IRIMO AZPI gure abesbatzan parte hartu duten lagun guztien lana eskertu gabe.

Hace 25 años que emprendimos nuestra andadura como Coro Parroquial de Lourdesko Ama.

Inicialmente éramos sólo 6 personas, pero el número fue aumentando poco a poco. Funcionó el boca a boca.

Cantábamos en el lateral del altar, normalmente el primer domingo de mes, además de bautizos, funerales, etc. Y como día más especial, el de nuestra patrona la Amatxo de Lourdes.

Aita Rubén nos animó a sacar la iglesia a la calle, y lo hacíamos en días como Santa Agueda por el barrio y Olentzero por los caseríos. Después surgió el grupo de ambiente, que se encarga de estas actividades y del homenaje que se hace en fiestas de las estaciones a los mayores del barrio y que financiamos gracias a lo que nos dan precisamente en la ronda de Navidad. Hemos colaborado en algunas ocasiones con los coros locales en Santa Cecilia y en la grabación de algunos discos, pero siempre a nivel del pueblo y sin olvidar que somos un coro parroquial.

En ocasiones salíamos a dar algún concierto, hemos estado en Irun y en Vitoria, siempre en relación con la Parroquia, porque nuestro coro está ligado a la parroquia y al barrio de las estaciones. También cantamos en bodas, sobre todo las de los hijos de los componentes del coro.

En estos momentos formamos el coro unas 35 personas y seguimos abiertos a todo aquel que se quiera incorporar. ¡Animo, que se necesita gente nueva!

No queremos dejar pasar esta ocasión sin agradecer la labor de todas las personas que de una u otra manera han formado parte de nuestro coro IRIMO AZPI.



▲ Irimo-Azpi abesbatza gabonetako kontzertuan

Bere Urretxuko karikaturgilea

Gorka Azkarate



Joxe Manuel Bereziartua, "Bere" goitizenez ezaguna, marrazketarako dohai apartak, besteak beste, dituen urretxuarra da. Betidanik izan du marrazketarako zaletasuna. Egun, karikaturgintzan buru-belarri murgildurik dago. Orain gutxi, bere lanak ikusgai egon dira Zumarragan, eta laster beste herri batzuetan ere egongo dira. Berarekin solasean izan gara, karikaturen mundua hobeto ezagutu asmotan.

_Ezaguna da betidanik duzula marrazteko zaletasuna...

Bai, beti gustatu izan zait marrazketaren mundua. Garai batean, gaztea nintzenean, artista ezagunen koadroak margotzen hasi nintzen kafean, Velazquezenak eta horrelakoak. Segidan, karikaturak egiten hasi nintzen eta bolada batean marrazki bizidunak ere egin nituen (Ipar Haizearen Erronka, tartean).

_Egun, karikaturak egitea afizio ez ezik, ogibide ere bada, neurri batean, zuretzat.

Karikaturak egiten ari nintzela, iritsi zen une bat zeinetan ikusi nuen diru-iturri ere izan zitekeela karikaturak marraztea. Argi daukat karikaturak egitetik ez naizela aberastuko, baina uste dut bidezimodua atera dezakedala...

_Zer dela eta, jende famatuaren karikaturak egite hori?

Jende famatuaren karikaturak egitera beharturik zaude, zure burua ezagutarazi nahi baduzu. Nire webgunean famatu askoren karikaturak daude ikusgai, aktoreak, politikariak eta horrelakoak. Africa Baetarena (ETBko kazetaria) esaterako, lau aldiz egin nuen, zaila egin zitzaidan. Penelope Cruzena ere, lau aldiz egin nuen, baina berriz ere egin behar dut, ez bainaiz gustora geratu.

Una caricatura tiene que ser buena para que la gente le coja el punto y funcione, de lo contrario, no servirá para nada.

_Karikaturak egiteko, edozein kasutan, marrazketa-rako dohai bereziak izatea ezinbestekoa izango da...

Ez dut uste dohai handiak behar direnik karikaturak egiteko, orduak sartzean datza kontua. Bestalde, norbaiten karikatura on bat egiteko, bizpahiru argazki on izatea beharrezkoa da. Eta, argazkiak ez ezik, bere bideoen bat-edo baduzu, edo bera pertsonalki ezagutzen baduzu, errazagoa izango zaizu, noski, bere karikatura egitea. Zenbat eta informazio gehiago eduki, hobeto. Orain gutxi, esaterako, Leo Messiren karikatura egin nuen; hiru argazki on



neuzkan, baina gehiago bilatu nituen, bere zantzuak ezberdinak baitziren argazki bakoitzean.

_Argazkietatik karikaturak egiten aritzeaz gain, kalean ere aritu izan zara lanean.

Uda garaia egokia da horretarako. Donostian, Hondarribian eta kostako herrietan, jende asko ibiltzen da eta paseoan dabilen jende horri karikaturak egiten aritu izan naiz. Herrietako jailetan ere aritu izan naiz. Kaleko lana gozagarria da, jendearekin harreman zuzena duzu eta jende asko ezagutzeko aukera ere bai. Normalean, 15 minutu inguru behar izaten ditut kalean karikatura bat egiteko. Batzuetan udaltzainekin tirabirak izaten ditugu, baimenak direla eta ez direla, baina ohituta gaude.

_Zer behar du karikatura batek gustagarria izateko?

Karikatura batek ona izan behar du gustagarria izan dadin, bestela ez du ezertarako balio. Hala ere, deformazio profesional handia dudala uste dut. Kalean zehar edo trenean noala, jendeari begiratu eta bere karikatura irudikatzen aritzen naiz, "hau eta hori egingo nioke...". Orain ere, zuri (elkarrizketatzaileari) karikatura nola egingo nizukeen pentsatzen ari naiz!

_Gertatu al zaizu noizbait norbaitek zuk egingadako karikatura begi onez ez ikustea?

Karikaturaren funtsa grazia harrapatzea da, eta umorez hartzea. Ez zait tokatu inork nik egindako karikatura gaizki hartzerik. Ama batek bere semearen karikatura ikusten duenean, eta zuk semearen akatsen bat nabarmendu baduzu, amak beti esango du "nere semeak ez dauzka belarri handi horiek...". Normala da. Nondik ikusten den eta nork ikusten duen da kontua. Opari pertsonala da karikatura bat, eta ondo egiten dakien norbaiti enkargatu behar diozu. Karikatura bat ondo eginez gero, detaile polita da.

El urretxuarra Joxe Manuel Bereziartua, más conocido como Bere, se ha dedicado al arte del dibujo desde que era joven. Hoy en día, está centrado en el mundillo de las caricaturas. Recientemente, ha expuesto su trabajo en Zumarraga y espera hacerlo en otros municipios. Según sus palabras, una caricatura tiene que ser buena para que la gente le coja el punto y funcione, de lo contrario, no servirá para nada.

D. Agustin Agirre, alkate ohia, goian bego

Jon Castrillo

Aurten, urretxuarrok hain kuttuna dugun S. Joanetako erromeria ospatzen ari ginen egunean, aspaldian bera ere hainbestetan partaide izandako D. Agustin Agirre Azurmendi, alkate ohia, Donostian hil zen 88 urte zituelarik.

Justo el pasado día de San Juan nos llegaba la noticia del fallecimiento de D. Agustín Agirre Azurmendi (q.e.p.d.), quien fuera alcalde de Urretxu desde julio de 1959 hasta noviembre de 1968.

Bederatzi urte bete zituen alkatetza buru, Nazario Alkortaren (1955-59) ondoren eta Ramón Maiztegiren (1968-75) aurretik.

Nueve años que han quedado especialmente grabados en la historia de Urretxu debido a su gran dinamismo y renovación urbanística, aunque con un final no demasiado feliz.

Nada más entrar de alcalde, se encontró con la celebración de la primera Euskal Jaia que Santiago Plazaola ya tenía a punto junto con otros compañeros de La Torcida.

Bere agindupean garatu ziren bereziki Aparicio, San Martín, Mundo Mejor eta Santa Barbara auzoak. Beste hainbeste egin zuen Labeaga eta Pagoetako "rascacielos"-ekin.

Bajo su mandato, por ejemplo, fueron desarrollándose los barrios, algunos prácticamente listos para estrenar como el de Aparicio, y otros como el de San Martín que ya avanzaba con los bloques 1 al 4 y que remató; también desarrolló el Mundo Mejor y el de Santa Bárbara, así como la primera fase del rascacielos de la calle Labeaga y dejando listo para empezar a construir los de Ipeñarrieta.

Durante su paso por la Alcaldía se llevaron a cabo varias traídas de aguas y se impulsó la instalación de un horno crematorio en Legazpi para junto con Zumarraga prestar servicio a los tres municipios. También, dentro del ámbito mancomunal, y gracias al acuerdo conseguido con la familia Orbegozo, se logró poner en marcha el originario Instituto de Bachillerato situado en pleno centro de la villa.



▲ Iñaki Linazasororen "Villarreal de Urretxua ayer y hoy" liburutik ateratako argazkia

Pero fue justo ese afán de lograr acuerdos a nivel comarcal el que le llevó a apostar, tal vez con excesivo ahínco, por la fusión de Urretxu con Zumarraga, lo que contrariamente a su parecer desencadenó una fuerte contestación popular, viviéndose incluso situaciones de grave enfrentamiento vecinal que le supusieron su salida del cargo.

Proposatutako "fusioa"-ren aurkako herritarren erantzunak alkatetzatik alde egitera behartu zuen.

Kaixo txiki

Gabonak!

Ana Isabel Iturbe



Kaixo neska, kaixo mutil! Gabonak aurrean ditugula gustora, gustora, ezta? Hementxe duzue zuen desioak, nahiak...opariak eskatzeko postala. Bete, ea zuen ametsak betetzen diren! Eguberrion guztioi, ondo ondo pasa ta gutxi gutxi gasta!



-> abenduak 27, 28, 29 eta 30
JOLAS PARKEA

11:00 - 13:30 / 16:00 - 18:30
Zumarragako Euskadi plazan

-> abenduak 30
XURDIN KONTZERTUA

17:00
Urretxuko Labeaga aretoan



-> urtarrilak 3 eta 4
PATINAJE ZIRKUITOA

11:00 - 13:30 / 16:00 - 18:30
Zumarragako Euskadi plazan

-> Eta Krisma Lehiaketako lanak ikusgai
Urretxu eta Zumarragako erakuslehoietan
abenduaren 17tik urtarrilaren 10era



**GABON
ZORIONTSUAK
GUZTIONTZAT!!!!**

Gabonetan dibertitzeko



Urretxuko udala
www.urretxu.net

URRETXUKO UDAL LIBURUTEGI BERRITUA ZURE ESKURA

Hurbildu zaitez zerbitzu berriak ezagutzera:

- Mediateka - infoteka gunea: ordanagailuak, bideoteka eta fototeka kontsultatzeko sistema berriak...
- "Haur txokoa"
- Talde lanak egin ahal izateko espazioa
- Hemeroteka

Zatoz gune berriaz goatzera

Astelehenetik ostiralera
17:00 - 20:00

Jauregi 21 - 943038091
liburutegia.ur@urretxu.net

Eta Gabonetan....



-> abenduak 15
17:30

IPUIN KONTALARIA

-> abenduak 16
17:30

**HAURRENTZAKO
TAILERRAK**

-> abenduak 17
18:30

OLENTZERO
etorriko da liburutegira
eskutitzak jasotzeko

